



BERGARAKO UDALA



BERGARAKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUAREN LAGUNTZAK

Euskararen Hitzarmenaren helburua bertako partaide diren talde, elkarte eta entitateek beren jarduna beren kasa eta ahal den autonomiarik handienaz euskaraz bideratzea dela kontuan izanda, Euskara Zerbitzuaren laguntzen artean lehentasuna emango zaie entitateetako kideak euskaraz trebatzeko laguntzei; hala nola, ikastaroak antolatuz eta ikastaroetara joateko laguntzak emanaz. Bestalde, entitateetako kideek euskaraz egindako testuak zuzentzeko zerbitzuari emango zaio lehentasuna itzulpenaren aurretik.

Autonomia hori lortzeko bidean, ondorengo laguntzak bideratuko dira Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzutik:

EUSKARAZKO BALIABIDE ETA MATERIALAK

Euskaraz funtzionatzeko gaitasuna duten kideen hizkuntza autonomia handitzeko elementuak prestatu eta entitateen esku jarriko ditu edota non lortu edo erosi daitezkeen jakinarazteaz arduratuko da:

Softwarea:

- XUXEN zuzentzaile ortografikoa instalatzeko eta erabiltzeko informazioa.
- Ordenagailu bidez kontsultatzeko hiztegien zerrenda eta link-ak.
- Euskaraz dauden programa informatikoen inguruko informazioa.

Bestelakoak:

- Elkarteen funtzionamendurako baliagarriak diren idazki ereduak (aktak, bilera deiak, fakturak, ...).
- Merkaturatzen diren eta elkarreterako egokiak izan daitezkeen euskarazko fitxa didaktiko (Kirola Euskaraz programatik sortutakoak, esate baterako), kontsulta-liburu, hiztegi, aplikazio informatiko eta bestelako baliabideen inguruko informazioa zabaldu eta helaraziko da Udaletik.

IKASTAROAK eta DIRULAGUNTZAK

- **Euskara ikastaro labur eta espezifikoak antolatuko dira**, zuzendaritza batzordeetako idazkarientzako, entrenatzaileentzako, begiraleentzako, ...
- **Euskara klaseetara joateko laguntzak eskainiko dira**, elkarrearen lana dela eta ume eta gazteekin harreman zuzena duten pertsonentzako (entrenatzaileak, begiraleak, ...).

TESTUEN ZUZENKETAK ETA TERMINOLOGIA KONTSULTAK

- **Zuzenketari emango zaio lehentasuna**; hau da, taldeko norbaitek euskaraz egiteko gaitasunik badu euskaraz egin dezaten animatuko dira, eta Udalaren zerbitzua euskarazko testuen **zuzentasuna eta ulergarritasuna ziurtatzera** bideratuko da.



- Zuzendu beharrekoa aurrez interesatuak euskaratutakoa baldin bada, **jatorrizko testua ere ekarri** beharko da.
- **Euskaraz idazterakoan sortutako zalantzak (terminologia eta abar) argitzen** lagunduko du Euskara Zerbitzuak.

ITZULPENAK

- **Entitateko inork ezin duenean, Udalak itzuliko ditu entitatearen oinarrizko testu finkoak eta behin eta berriz erabiltzekoak** (estatutu, arautegi, inprimakiak, bazkide txartelak, fakturak, errotuluak...).
- **Eguneroko jardunean sortutako lanei dagokienez**, entitateko kideek euskaraz sortzea denez lortu nahi den helburuetako bat, Euskara Zerbitzuan **lehentasuna emango zaio entitateak berak euskaraz sortutako idatziak zuzentzeari eta, behar denean, gaztelerara itzultzeari.**
 - **Gaztelaniatik euskararako itzulpenari dagokienez**, entitateek ahalegin berezia egin beharko dute lan horiek euskaraz egiteko, baina **ezinezkoa denean izango dute horretarako laguntza Euskara Zerbitzuan.**

Hala ere, kasu hauetan ondorengoak hartuko dira kontuan:

- **Testuaren erabilera:**
 - **Euskara hutsean erabiltzeko testuei emango zaie lehentasuna.**
 - Testua zabalpen handikoa edo behin eta berriz erabiltzekoa izan beharko da: kartelak, bilera-deiak, publizitate-orriak, material-zerrendak,... **Hartzaile bakar bati zuzendutako idatziak ez dira itzuliko.**
- **Luzerari dagokionez**, printzipioz **3 orrialdetik beherako itzulpenak egingo dira**. 3 orritik gorakoen kasuan, eta Euskara Zerbitzuaren ohizko martxa oztopatu dezaketenean, kasua aztertu eta erabakiko da zer egin: bertan egin edo eskatzaileari itzultzaile profesional batengana jotzeko esan.
- **Antzeko testuak.** Euskara Zerbitzuaren laguntza jasotzen dutenek gorde egin beharko dituzte itzultzen zaizkien testuak, eta antzeko testuak suertatzen direnean, lehendik itzulita dutena ekarri beharko dute.

Zuzenketa eta itzulpenak eskatzerakoan, besteak beste, ondorengo hauek ere bete beharko dira:

- **Testuak erraz ulertzeko moduan ekarri beharko dira Euskara Zerbitzura**; ahal bada, euskarri informatikoan (batez ere, zuzentzekoak) eta bestela makinaz edo letra txukunez idatzita.
- **Idatzia sortu duenaren edo arduradunaren telefono zenbakia** eskuratu beharko zaigu beti, edukia ulertzeko edo itzulpen egokia erabakitzeko zalantzaren bat izanez gero, kontsultatu ahal izateko.
- **Epeak.** Lanaren luzera ikusitakoan baloratuko du Euskara Zerbitzuak noizko egin dezakeen lana; eta aurrez esan bezala, lehentasuna emango zaio euskarazko testuak zuzentzeari. Oso presazkoa bada, itzultzaile profesional batengana joatea gomendatuko zaio interesatuari.